

## SIBASTARRAK

### LEHENTA

Aitzina norat joanen giren  
aisago haütatzen beita  
Gure euskal historiari  
so bat egitez gibelka.

Arren aurkeztü detzagün  
Madalena ta Jean Sibas  
Aipagei franko beitätü  
anai-arreba horietaz.

Jaureguiberry familia,  
euskaldün franko bezala  
Bere haur txipiñiekila  
joan zen Argentinala.

Harat arte entzüten züen  
euskal oihartzün ozena  
Sartzeko nahiak erratzen zeien  
korpitzaren barna.

Etxalte bat erosten düe,  
SIBASIA izenekoa  
Oraikoan Zibozen date  
famiariaren etxondoa.

Sibaseko familia  
azkarki handitzen bada  
Bederatzü haurrideen  
gosea ere larritzen da.

Ordüan Alexis aita,  
hogei urtez ützi eta  
Berriz Argentinat  
behartürük badoa soska.

Madalena harekin doa,  
lagüntü nahi beitätü  
Jeanen süstengüarekin,  
ahizpak jinarazten dütü.

Bi gerla müdüalen artean  
basakeriak oldartürük  
Jüstizia baten gosez  
ez ziren egon isilik.

Aitzina norat joanen garen  
aiseago hautatzen da  
gure euskal historiari  
so bat egitez gibelka.

**Arren** aurkeztu ditzagun  
Madalena eta Jean Sibas,  
aipagai franko baitugu  
anai-arreba horietaz.

Jauregiberri familia,  
euskaldun franko bezala,  
bere haur txikiñoekin  
joan zen Argentinara.

Haraino entzuten zuten  
euskal oihartzun ozena.  
Sartzeko nahiak erretzen zien  
gorputzaren barna.

Etxalde bat erosten dute,  
Sibasias izenekoa.  
Oraingoan, Zibozen **dateke**  
famiariaren etxondoa.

Sibasiako familia  
azkarki handitzen da.  
Bederatzi haurrideen  
gosea ere larritzen da.

Orduan, Alexis aita,  
hogei urtez utzi eta  
berriz Argentinat  
behartürük badoa **soska**.

Madalena harekin doa,  
lagundu nahi baitu  
Jeanen sostenguarekin.  
Ahizpak **jinarazten** ditu.

Bi mundu-gerren artean  
basakeriak oldarturik,  
Justizia baten gosez  
ez ziren egon isilik.

bada

egongo da

diru bila

etorrarazi

Euskal Herriko altxorren  
balioaz zirelarik ohartü  
Hegoaldeko aurrideak  
Francorenganik babestü.

Jite handiko birazka,  
ausarta eta nahianta  
Borrokatü ziren hurrek  
üken zezen euskararen dreta.

Euskal Herriko altxorren  
balioaz zirelarik ohartu,  
Hegoaldeko haurrideak  
Francorengandik babestu.

**Jite** handiko bikotea,  
ausarta eta **nahianta**;  
borrokatu ziren hurrek  
ukan zezaten euskararen eskubidea.

nortasun  
kementsua

## SATANAK

### Sutagar

Satan ene lagün tzarra,  
ene ber gaüza entzün düka?  
Behatzeak berak mardoarazten nik!  
Horien bizia ez dea anplexka?

### Satan

Ez dütün hola malürrik gabe  
mündüaren beste püntalat  
Harat honakan aritzen ahal...  
Eho behar hüke norbait!

### Sutagar

Madalenaren senargeiak  
har beza itsasontzia  
Atlantikoan zehar  
aisa dikeat itoaztea!

Pena handiegi dikek  
amodioari pentsatzeko.  
Ez dik seküla besterik  
atzamanen Ama izateko.

### Satan

Arrazu dün Sütagar!  
Goxotarzün greügarri horri  
Piper eta gatz ezar bageneza  
bilaka dadin lotsagarri.

### Sutagar

«Lehen gerla mündüala»  
deit bageneza edireitera  
Sibaseko gizonak hiltzera  
beharturik lütükek joaitera.

### Satan

Aita-alabak sar ditean  
xüxenka Zibozera  
Alexis joan dadin  
gerlaren ondorioz hiltzera.

### Sutagar

Satan, ene laguntzarra,  
ene ber gauza entzun **duka**?  
**Behatzeak** berak **mardoarazten** nauk!  
Horien bizia ez **dea anple**?

### Satan

Ez ditun horrela, **malurrik** gabe,  
munduaren beste puntarat  
hara-hona aritzen ahal.  
**Ero** behar huke norbait!

### Sutagar

Madalenaren senargaiak  
har beza itsasontzia.  
Atlantikoan zehar  
aise **dikeat** itoaztea!

Pena handiegi **dikek**  
**amodioari** pentsatzeko.  
Ez dik sekula besterik  
atzemanen ama izateko.

### Satan

Arrazoi dun, Sutagar!  
Gozotasun nazkagarri horri  
piper eta gatz ezar bageniezaio,  
bilaka dadin lotsagarri?

### Sutagar

Lehen Mundu Gerra  
**dei bageneza ediretea**,  
Sibaseko gizonak hiltzera  
beharturik lituzkek joatera.

### Satan

Aita-alabak sar daitezen  
zuzenki Zibozera,  
Alexis joan dadin  
gerraren ondorioz hiltzera.

al duk  
entzun / puztu  
al da barea

zorigaitz

hil

izango diat

izango dik  
amodioaz

deituko  
bagenu  
asmakuntza

## 1. JELKALDIA

*Lehen Mundu Gerraren hasiera*

### **Luisa Laphisborde**

Gerla hontan parte hartzeak  
izidüras gütü letatü  
Tiroek hiltzen ez gütüenak  
lohiak lürperatzen gütü.

### **Jean Jacques Lespinasse**

Gogozkatzeko partez hor  
ohart hadi dügün xantzaz:  
Frantzia handiaren alte  
biziaren eskeintzeaz!

### **Maiana Gazteluzarri**

Frantziak güntüan erosi  
gure bizien saltzeko  
Erabilten gütüe  
beren ohorearen argiarazteko.

### **Clément d'Andurain**

Gogoa eho ditade,  
hoztürük diat ene odola  
Esperantxa bakar bat diat,  
herioak salba nezala.

### **Jean Pierra Dibar**

Korputzeko mina beno  
bortitzago zainena  
Ertzokeriaz hürrüntzeko  
bürüaren galtzea hoberena.

### **Peio Moléros**

Etxekoek hobe düe  
gerlaz ez deüs ere jakinik  
Senarrük gabe bizia  
aski gaitz düe jadanik.

### **Auguste Etxeberri**

Nik ere ez dieat sobera  
gütünetan kontaktzen  
Bardin hantik nork ahal dü  
hebenkorik entelegatzen?

### **Margarita Peillen**

Adiskideen korputzak  
bazkari arratuentako  
Bizi herexa bakarra da  
kabale hori guretako.

### **Luisa Laphisborde**

Gerra honetan parte hartzeak  
izuz gaitu blaitu.  
Tiroek hiltzen ez gaituztenak  
lohiak lurperatzen gaitu.

### **Jean Jacques Lespinasse**

**Gogozkatzeko** partez hor,  
ohar hadi dugun **xantzaz**:  
Frantzia handiaren alde  
biziaren eskaintzeaz!

### **Maiana Gazteluzarri**

Frantziak gintuen erosi  
gure bizien saltzeko.  
Erabiltzen gaituzte  
beren ohorearen argiarazteko.

### **Clément d'Andurain**

Gogoa **ero** didate,  
hozturük diat ene odola.  
Esperantza bakar bat diat:  
herioak salba nazala.

### **Jean Pierra Dibar**

Gorputzeko mina baino  
bortitzago **zainena**.  
**Ertzokeriaz** urruntzeko,  
buruaren galtzea hoberena.

### **Peio Moléros**

Etxekoek hobe dute  
gerraz ez deus ere jakinik.  
Senarrük gabe, bizia  
aski gaitz dute jadanik.

### **Auguste Etxeberri**

Nik ere ez diat sobera  
gutunetan kontaktzen.  
**Berdin** handik nork ahal du  
hemengorik **entelegatzen**?

### **Margarita Peillen**

Adiskideen gorputzak  
bazkari arratoiendako.  
Bizi-**herexa** bakarra da  
**kabala** hori guretako.

gogoeta egin  
zorte

hil

nerbio  
erokeriatik

izan ere  
ulertu

aztarna  
abere

**Clément d'Andurain**

Zer infernua den gerla,  
betiko mamuturik gira  
Ez dü balio kontatzea,  
bizitzen delarik besterik da.

**Clément d'Andurain**

Zer infernua den gerra;  
betiko mamuturik gara.  
Ez du balio kontatzea.  
Bizitzen delarik, besterik da.

## GERLA ONDOKO AMETSA

Ürzo lepo xuria hona hiz apalik,  
Hirekila jin nintek nik banü hegalik.  
Zohardi diagü eta aidea epelik  
Ez dük bardin aitzina joateko ahalik,  
Pausa hakit aldean, ez dük en(e) axolik

Ihizlari gaixoa, mintzo hiz eijerki,  
Bena ez nük abiatzen sobera arinki,  
Hire deseina zer den otean baneki  
Axolik ez düdala segürtantxareki,  
Pausa nintek mila plazereki.

Ene deseina zer den nahi deiat agertü  
Plazer düdalarik memento bat behatü.  
Nahi deiat lehenik gaüza bat galtatü,  
Gerlalekü horietan hizanez pausatü  
Eta gero zer düan han aperzebitü.

Igaran den urtean ez nündüan pausatü,  
Bazter orotan tiroz beinündüen ohiltü.  
Aurten isiltarzün bat diat ezagütü,  
En(e) ustez ber güneetan izan nük abüsatü,  
Bena hanko tiroek ez naüe anbürratü.

Ez hüan ez aurtenko kolpeen axolik,  
Zonbait egün hontan dük gerla akabirik.  
Bitoria badiagü ontsa kostarik,  
Biga-bost maleruski hantxe baratürrik,  
Frantziaren salbatzeko amak dolü eginik.

Nahi deiat nik erran han zer den ageri,  
Noratnahi soginik orotan hil herri,  
Kürütxe beltz elibat zahar eta berri,  
Bürdüin txapel bedera бүrüan jauntsirik  
Ari dütük emaiten esküak algarri.

Pena egiten deitak bihotza(re)n erdian  
Kürütxe beltz horietaz mintzo hizanean.  
Anaia bat badiat h(ai)etarik batean,  
Plazer badük lili bat eraman ützültzean  
Nahi haüt ontsa hazi aurtenko negüan.

Hireki egonen nük negüan gustüan,  
Ogi bihi jan eta lo hegatz pean,  
Liliareki joanen dagün bedatsean,  
Hura moskoan eta nigarra begian  
Pausatüren dioat xüxen kü(rü)txe gaine(a)n.

Uso lepozuria, **hona haiz** apalik.  
Hirekin **jin** nintek nik banu hegalik.  
**Zohardi** diagu, eta airea epelik.  
Ez duk **berdin** aitzina joateko ahalik.  
Pausa hakit aldean, ez duk ene axolarik.

Ehiztari gaixoa, mintzo haiz ederki,  
baina ez nauk abiatzen sobera arinki.  
Hire **deseinua** zer den **otean** baneki,  
axolarik ez dudala segurantzarekin,  
pausa nintek mila plazerekin.

Ene deseinua zer den nahi diat agertu.  
Plazer dudalarik, memento bat **behatu**.  
Nahi diat lehenik gauza bat **galdatu**:  
gerra-leku horietan haizenez, pausatu,  
eta gero zer duan han hauteman.

Iragan den urtean ez ninduan pausatu,  
bazter orotan tiroz baininduten **ohildu**.  
Aurten isiltasun bat diat ezagutu.  
Ene ustez, ber guneetan izan nauk abusatu,  
baina hango tiroek ez naute trabatu.

Ez huen, ez, aurtengo kolpeen axolarik.  
Zenbait egun honetan duk gerra akabaturik.  
Bitoria badiagu ontsa kostarik,  
biga-bost **maluruski** hantxe **baraturik**,  
Frantziaren salbatzeko amak dolu eginik.

Nahi diat nik erran han zer den ageri:  
noranahi so eginik orotan hilerri,  
gurutze beltz **elibat**, zahar eta berri.  
Burdin txapel bedera buruan jantzirik,  
ari dituk ematen eskuak elkarri.

Pena egiten didak bihotzaren erdian  
gurutze beltz horietaz mintzo haizenean.  
Anaia bat badiat haietarik batean.  
Plazer baduk, lili bat eraman itzultzean.  
Nahi haut **ontsa** hazi aurtengo neguan.

Hirekin egonen nauk neguan gustuan.  
Ogi bihi jan, eta lo **hegatz** pean.  
Liliarekin joanen **daugin** bedatsean.  
Ura mokoan eta negarra begian.  
Pausatuko zioat zuzen gurutze gainean.

etorri haiz  
etorri  
oskarbi  
izan ere

asmo / ote

entzun  
eskatu

bota, egotzi

zoritarrez /  
geraturik

batzuk

ondo

teilatu  
datorren /  
udaberri

Haren kepia dükek kürütxe gainean  
Ürre galu bateki alde aitzinean  
Ezar izok lilia ontsa agerian  
Jenteek ikus dezaien ebilten di(r)enean  
Hetaz ohartzen direnak badirela mündüan.

Eta lehen lilia zeikünean jelki,  
Ürzo gazte xuria aidatü tristeki,  
Larraine (e)re kitatü bost haspereneki,  
Eraman dü lilia moskoan eijerki,  
Gure eskerrik hoberenak besarka handireki

Haren **kepia** dukek gurutze gainean,  
urre galoi batekin alde aitzinean.  
Ezar iezaiook lilia ontsa agerian,  
jendeek ikus dezaten ibiltzen direnean  
haisetaz **ohartzen** direnak badirela munduan.

Eta lehen lilia zaigunean jalgi,  
uso gazte zuria **airatu** tristeki.  
Larraine ere kitatu bost hasperenekin.  
Eraman du lilia mokoan ederki.  
Gure eskerrik hoberenak, besarka handiekin.

militar-kapela

oroitu

aireratu

## 2. JELKALDIA

*Zuberoako gizon gazteak gerrara doaz*

### **Maidar Bidegain Elixabe**

Frantsesekin güdükatü  
behar din eüskal jenteak  
Xiberoa hüstü deikü  
gerla honen basakeriak.

### **Antonia Iriarte**

Lantegietako lana  
ikasi dit tarrapatan  
Xiberoko mekanikak  
hartü ditzüzü güre gain.

### **Aña Etxandi**

Laborantzako lan gaitzak  
nihaurek ditiñat eraman behar  
Eiñherik nün aspaldixkan  
ez dezan üztarik ekar.

### **Pette Aphalasppe**

Eskolako errejenta  
güdükalat joanez geroz,  
Gelak zerratürrik  
ama lagüntzen dit indar oroz.

### **Maddi Oskigil**

Semea gerlan nahi dit  
zalhe arrapiskolatü  
Honkeria zonbait igortez  
aho-bihotzak bellotü.

Maleruski apür düzü  
gihaurentako badügüna  
Prezioak goiti ari dütüzü  
nola erosiko düit irina?

### **Johañe Hastoi**

Ni adinak salbatürrik  
gerlaren aztaparretarik  
Ahül nün züen lagüntzeko,  
ez diñat indar handirik!

### **Luis Ligueix**

Eni gerlako adina  
hüllantzen ari zitazü  
Ez nüzü batere joan nahi,  
harritürrik bizi nüzü.

### **Maidar Bidegain Elixabe**

Frantsesekin gudukatu  
behar din euskal jendeak.  
Xiberoa hustu digu  
gerra honen basakeriak.

### **Antonia Iriarte**

Lantegietako lana  
ikasi dut tarrapatan.  
Xiberoko mekanikak  
hartu ditugu güre gain.

### **Aña Etxandi**

Laborantzako lan gaitzak  
nihaurk ditiñat eraman behar.  
**Unaturik** naun aspaldi  
ez dezan uztarik ekar.

### **Pette Aphalasppe**

Eskolako **errejenta**  
gudukara joanez geroz,  
gelak zerraturik.  
Ama laguntzen dut indar oroz.

### **Maddi Oskigil**

Semea gerran nahi dut  
**zalu** indarberritu.  
Ondasun zenbait igortzez  
aho-bihotzak berotu.

**Maluruski**, apur da  
**guhaurendako** baduguna.  
Prezioak goiti ari dira.  
Nola erosiko dut irina?

### **Johañe Hastoi**

Ni adinak salbaturik  
gerraren atzaparretarik,  
ahul naun zuen laguntzeko.  
Ez dinat indar handirik!

### **Luis Ligueix**

**Eni** gerrako adina  
hurbiltzen ari zait.  
Ez naiz batere joan nahi.  
Harriturik bizi naiz.

nekaturik

zuzendari

arin, laster

zoritarrez  
geuretzat

niri



### **Teresa Ahaneder**

Entzün dit aitzindari horiek  
espres ez düela erraiten  
Gure anple begiratzeko  
orai arte zonbat hil baden.

### **Elisabet Ager**

Kartielean ja bagütüzü  
alargüntsa andana bat  
Korputzak ehortz detzagün,  
ekarriko dütüeia herrilat?

### **Madalena**

Hire gisa badakiñat  
ez dela min latzagorik  
Maite denaren korputza  
ehorzten ahal ez delarik.

Enea ez dün gerlan hil,  
itsasoak ditan ebatsi  
Gogoan diñat bientako  
behar düdala orai bizi.

Mauleko Ospitalean  
behar ditiñe beso franko  
Erizain gisa ari nün,  
kolpatüen lagüntzeko.

Miseriaren kontreko gerla  
dügüla irabazten ahal  
Herria gure gain beita,  
ez dezagün esperantza gal!

### **Maiana Erby**

Mezü honen zabaltzera  
manaturik izan nüzü:  
Lau urte iraün düan gerla  
ürrentü omen ziküzü!!!

### **Teresa Ahaneder**

Entzun dut **aitzindari** horiek  
espres ez dutela erraten,  
**gure anple begiratzeko,**  
orain arte zenbat **hil** baden.

### **Elisabet Ager**

**Kartierrean** ja bagara  
alargun andana bat.  
Gorputzak ehortz ditzagun,  
ekarriko **dituztea** herrira?

### **Madalena**

Hire gisa, bazekinat  
ez dela min latzagorik  
maite denaren gorputza  
ehorzten ahal ez delarik.

Enea ez dun gerran hil;  
itsasoak didan **ebatsi**.  
Gogoan dinat birendako  
behar dudala orain bizi.

Mauleko ospitalean  
behar ditziten beso franko.  
Erizain gisa ari naun,  
**kolpatuen** lagüntzeko.

Miseriaren kontrako gerra  
dugula irabazten ahal,  
herria gure gain baita,  
ez dezagun esperantza gal!

### **Maiana Erby**

Mezu honen zabaltzera  
**manaturik** izan naiz:  
lau urte iraun duen gerra  
**urrendu** omen zaigu!!!

buruzagi

gu lasai edukitzeko

hildako

auzoan

al dituzte?

lapurtu

zauritu

agindu

amaitu

## IGARANA ETA GEROA

Halabeharrez abiatürrik  
frantses poderearen menpe  
Lürrepaietan lohian  
biziz hainbat hilabete  
Gure biziak ordüan  
saltzen zütüen oso merke  
Zer ertzokeriaren izenean  
hori honart genezake?

Frantsesarekin бүрүa ito,  
gerlarat abiatzean  
Ata eüskaldün fedea  
pizten zeikün kantatzean  
Korajea eta indarra  
sorterriaz oritzean  
Frantziaren alde borrokan  
Xiberoa bihotzean.

Soldadoak sartü dira  
arima frentean üztez  
Hil direnen hilobiak  
tapatü behar nigarrez  
Artean herrian lanean,  
borontate ta indarrez  
Xahar, emazte ta haurrak  
arratxütitzeko gosez.

Tiroen herotsa ez beita  
haboro nihon ere ezagün  
Izan gitean oraitik goiti,  
boztarioaren lagun  
Ülünpea ezagütürrik  
argia pitz dadin egün  
Igaranetik ikastez,  
geroa idatz dezagün.

Halabeharrez abiaturik  
frantses boterearen menpe,  
lubakietan, lohian  
biziz hainbat hilabete.  
Gure biziak ordüan  
saltzen zituzten oso merke.  
Zer **ertzokeriaren** izenean  
hori onar genezake?

Frantsesarekin burua ito  
gerrarat abiatzean.  
**Alta** euskaldun fedea  
pizten zigun kantatzean,  
**kuraia** eta indarra  
sorterriaz oroitzean.  
Frantziaren alde borrokan,  
Xiberoa bihotzean.

Soldaduak sartu dira,  
arima frontean uztez.  
Hil direnen hilobiak  
tapatu behar negarrez.  
Artean, herrian lanean  
borondate eta indarrez  
zahar, **emazte** eta haurrak  
birzütitzeko gosez.

Tiroen **herotsa** ez baita  
**haboro nehon** ere ezagun,  
izan gaitezen oraindik goiti  
**bozkarioaren** lagun.  
Ilunpea ezaguturik  
argia pitz dadin egun.  
Igaranetik ikastez,  
geroa idatz dezagun.

erokeria

hala ere

adore

emakume

zarata

gehiago / inon

poz, alaitasun

### 3. JELKALDIA

*Sibas anaiak gerratik itzultzen dira*

#### **Pierra Aphecex Salahanka**

Lau urtez güdükatürük,  
basakeriaz greütürük  
Betiko sartzen gütüzü  
Xibero, horra gitzaizü!

#### **Dorotea**

Oi boztario handia  
ene semeen ikustea  
Hain zikin, mehe, bilozü,  
ordü dük orai pausatzea.

#### **Gregori-Alexis**

Ez gütüzü aisa lotzen,  
oihü ta amets gaixtoek  
Iratzarrarazten gititzüe,  
bürüa galtzen dügü oroek.

#### **Margarita**

Züek gerlalat joanez geroz,  
isilgoan ützi gütüe  
Azkenekoz hor zütüegü,  
oro konta zenezakie.

Jean Afrikan dük medezi,  
gerla hasi denaz geroz  
Harek ere berririk gabe zela  
idazten zian aste oroz.

#### **Jean Iriart**

Margarita, gerlan igarana  
hobe dün gerlan üztea  
Neke dün irudi hetaz  
gogoaren libratzea.

#### **Pierra Aphecex Salahanka**

Segür gira ja gerla hau  
azkena zen, ez da düdarik!  
Holakorik arregiteko nihor ere  
ez da aski ertzorik.

#### **Clément**

Aita gripak eraman dizü,  
gü honki egin gititzü  
Harek zion «goxa dezagün,  
Xiberoa, hain da hontsü!»

#### **Pierra Aphecex Salahanka**

Lau urtez gudukaturik,  
basakeriaz nazkaturik,  
betiko sartzen gara.  
Xiberoa, **horra gara!**

#### **Dorotea**

Oi, bozkario handia,  
ene semeen ikustea.  
Hain zikin, mehe, **bilotsu,**  
ordu duk orain pausatzea.

#### **Gregori-Alexis**

Ez gara aise **lotzen.**  
Oihu eta amets gaiztoek  
iratzartzen gaituzte.  
Burua galtzen dugu oroek.

#### **Margarita**

Zuek gerrarat joanez geroz,  
**isilgoan** utzi gaituzte.  
**Azkenekoz,** hor zaituztegu.  
Oro konta zenezake.

Jean Afrikan duk mediku  
gerra hasi denaz geroz.  
Hark ere, berririk gabe zela,  
idazten zian aste oroz.

#### **Jean Iriart**

Margarita, gerran igarana  
hobe dun gerran uztea.  
Neke dun irudi haietaz  
gogoaren libratzea.

#### **Pierra Aphecex Salahanka**

Segur gara ja gerra hau  
azkena zen. Ez da dudarik!  
Horrelakorik berregiteko inor ere  
ez da aski **ertzorik.**

#### **Clément**

Aita gripeak eraman du.  
Gu ongi **egin** gara.  
Hark zioen «goxa dezagun,  
Xiberoa hain da ontsu!».

etorri gara

iletsu

lokartu

isiltasun  
azkenean

ero, zoro

atera

#### 4. JELKALDIA

*Jean Afrikatik Euskal Herrira itzultzen da*

##### Madalena

Gogorrena igaran diagü,  
orai behar diagü gozatü  
Ene herriaz güti dakiat,  
arren nahi diat kurritü.

Gure Xibero xokoa  
Eüskal Herriko ttika bat  
Baizik ez dela gisala,  
joan nahi nük kostaldealat.

##### Jean

Donibane Lohizune  
erakasten ahal neikezü  
Han badakizün bezala  
bedezigoan ari nüzü.

Jente zombait ezagütürik,  
lagün talde hon bat badit  
Interesatzen bazütü,  
presentatzen ahal deitzüt.

Ari gütüzü üsüxka  
gogoetatze lanetan  
Lafitte apezak argitürik,  
irakurten eta elestan.

Ezkonformismotarzünaz,  
gure eüskal nortarzünaz,  
Estatü handien kontre  
pentsatzen dügün güziaz.

##### Madalena

Laxüki gogoeta horiek  
ez zütüe komünisten  
Ez eta sozialisten  
ideietarik hüllantzen?!

##### Jean

Prefosta Léon Blum  
eta beste «Hargin beltzen» sekta  
Lanjerosak lütükezü  
ekar lezakeelako faillita!

##### Madalena

Gogorrena igaran diagu.  
Orain behar diagu gozatu.  
Ene herriaz gutxi zekiat.  
**Arren** nahi diat **korritu**.

Gure Xibero zokoa  
Euskal Herriko **ttika** bat  
baizik ez dela, **gisala**,  
joan nahi nauk kostalderat.

##### Jean

Donibane Lohizune  
erakusten ahal nizuke.  
Han, badakizun bezala,  
medikuntzan ari naiz.

Jende zenbait ezaguturik,  
lagun talde on bat badut.  
Interesatzen bazaizu,  
presentatzen ahal dizkizut.

Ari gara usu  
gogoetatze lanetan;  
Lafitte apaizak argiturik,  
irakurtzen eta **elestan**.

Ez-konformismoaz,  
gure euskal nortasunaz,  
estatu handien kontra  
pentsatzen dugun guztiaz.

##### Madalena

**Laxoki** gogoeta horiek  
ez zaituzte komunisten  
ez eta sozialisten  
ideietarik hurbiltzen?!

##### Jean

**Prefosta**, Léon Blum  
eta beste **hargin beltzen** sekta  
lanjerosak lirakeke,  
ekar lezaketelako haustura!

bada / ibili

gauza txikia  
antza, omen

hizketan

agian

dudarik gabe  
masoi

**Madalena**

Bai interesgarri zitak  
solasean hola aritzea  
Gogozketa talde horri  
izenik eman dozueia?

**Jean**

Gure «Aitzina» kasetan  
agerraraziko dizügu:  
«Eskualerrizaleen Biltzarra»  
deitü dizügu.

**Madalena**

Bai interesgarri zaidak  
solasean honela aritzea.  
Gogoeta talde horri  
izenik eman **diozuea**?

**Jean**

Gure Aitzina kazetan  
agerraraziko dugu:  
Eskualerri Zaleen Biltzarra  
deitu dugu.

al diozue?

## 5. JELKALDIA

*1922ko apirilean Emakume Abertzaleen Batza sortzen da*

### **Polixene**

Zenbat lagun gauden hemen!  
Bakoitzari ongi etorri!  
Eskerrik asko  
animatu zaretenoi, guztieri!

Espainiar estatua  
indar zapaltzaile hura  
Eskualdunak deuseztatu nahiz  
lanean ari da.

### **Julia**

Frankismoa milikatzen ez duena  
preso sartu  
Errepresioarekin  
isilarazi nahi gaitu!

Guk mihiak josi gabe,  
aho batez ar gaitzen  
Boz bakar bat ahul bada,  
elkartuz oihu bihurtzen.

### **Julene**

Lagunak batu dezagun  
euskal indarra, kemena  
Emakume, Abertzale,  
geurea da garaipena!

### **Polixene**

Zenbat lagun gauden hemen!  
Bakoitzari ongi etorri.  
Eskerrik asko  
animatu zaretenoi, guztiei!

Espainiar Estatua,  
indar zapaltzaile hura,  
euskaldunak deuseztatu nahiz  
lanean ari da.

### **Julia**

Frankismoa milikatzen ez duena  
preso sartu.  
Errepresioarekin  
isilarazi nahi gaitu!

Gu, mihiak josi gabe,  
aho batez ari gaitzen.  
Boz bakar bat ahul bada,  
elkartuz oihu bihurtzen.

### **Julene**

Lagunak, batu dezagun  
euskal indarra, kemena.  
Emakume, abertzale,  
geurea da garaipena!

## 6. JELKALDIA

*Lafitte apaizaren gutuna Iparraldeko emakumeei "Eskualduna" aldizkarian*

### **Madalena**

Donibanen laketurik  
hire adiskideekin  
Azkartzen ari ziztadak  
erroak euskal lurrarekin.

### **Jean**

Euskaldün batek ziozün,  
herria dügü korpitza  
Bürüa, eskuak gure tresnak,  
hizkuntza berriz bihotza.

### **Madalena**

Donibanen laketurik  
hire adiskideekin,  
azkartzen ari zaizkidak  
erroak euskal lurrarekin.

### **Jean**

Euskaldun batek zioen:  
«Herria dugu gorputza;  
burua, eskuak, gure tresnak;  
hizkuntza, berriz, bihotza».

## KUSKUAREN BALADA

Küxkü bat hur hegian  
nihaur nindoanean  
egün batez bildü nüan  
Donibaneko hariñan.  
botz gora ezti batean  
erran zeitan beharrian  
biak ariko ginela kantan,  
eta ni apalean.

Uhainek plisti plistan  
noten harat honakan  
ützi züen hitzekilan  
bertso bat ildoetan  
ainera Ziboze xokoan  
itsasürzo kostaldean,  
aisa lüke hegaldatzean  
hedatzea denetan.

Enbatak hartü düan  
Irlandesen ileetan  
ta gero hegoaldean  
ezpainen kantuetan  
ez litaïke debaldetan  
gorri doi bat errepikan,  
heben ordüan ützi dezan  
emazteen bihotzetan.

Küxküa hur hegian  
berriz pausatü nüan  
egün hartan entzütean  
oihartzün ene baitan  
errana bere mezüan  
etxeki düit memorian  
geroztik Eüskal Herrian  
kurritzen niz plazetan.  
Lapurdin emaztekilan,  
anderekin Xiberoan  
kantü hau dezagün eman  
denek batarzüean.

**Kusku** bat ur hegian  
nihaur nindoanean  
egun batez bildu nuen  
Donibaneko harean.  
Botz gora ezti batean  
erran zidan belarrian  
biak ariko ginela kantan,  
eta ni apalean.

Uhinek plisti-plistan  
noten hara-honakoan  
utzi zuen hitzekin  
bertso bat ildoetan.  
Ainara Ziboze xokoan,  
itsas uso kostaldean,  
aise luke hegaldatzean  
hedatzea denetan.

Enbatak hartu duen  
irlandarren ileetan,  
eta gero hegoaldean,  
ezpainen kantuetan,  
ez litzateke debaldetan  
gorri doi bat errepikan,  
hemen orduan utzi dezan  
emazteen bihotzetan.

Kuskua ur hegian  
berriz pausatu nuen.  
Egun hartan entzutean  
oihartzuna ene baitan,  
errana bere mezuan  
atxiki dut memorian.  
Geroztik Euskal Herrian  
**korritzen** naiz plazetan,  
Lapurdin emazteekin,  
andreekin Xiberoan,  
kantu hau dezagun eman  
denek batasunean.

maskor

ibili



### Madalena

Gütün bat irakurri diat  
«Eskualduna» astekarian  
Augusta Larralderen deia  
hedatzen zitak bürüan:

Eüskal emazteer ari dük  
eüskal hizkuntzaz, kùltürüz  
Eüskal üsantxen üngürüan  
alkartzeko düan xedeaz.

### Jean

Ene arreba hardita,  
sabelean düzün pindarra  
Baliatü behar düzü,  
gizarteak badü beharra!

Augusta Larralde nor den  
ez nakikezü erraiten  
Euskalzaleer ahalko diet  
dagün bilküran galtegiten.

### Madalena

Augusta non ote zira?  
Üztaritze zokokatü dit  
Atsülütoki zurekin  
orai elestatü behar dit.

### Lafitte Apeza

Idazle haren gibeletik  
etziteala haboro akit  
Üngürükan ariko zira,  
ez dizü balio tirrit.

Jinkoaren aitzinean  
kofesatü beharko dit  
Augusta Larralde hura  
osoki nik asmatü dit...

### Madalena

Ez nizün phürü pentsatüko  
Augusta apez bat zela  
Berri drole hori ützirik,  
lagünt nezazü berehala.

### Lafitte

Berriki ezagütü dit  
Emazte Abertzaleen Batza  
Iparraldean züek ere  
eman zenezakeie botza.

### Madalena

Gaitun bat irakurri diat  
Eskualduna astekarian.  
Augusta Larralderen deia  
hedatzen zaidak buruan.

Euskal emazteei ari duk  
euskal hizkuntzaz, kulturaz,  
euskal usantzen inguruan  
elkartzeko duan xedeaz.

### Jean

Ene arreba **hardita**,  
sabelean duzun **pindarra**  
baliatu behar duzu.  
Gizarteak badu beharra!

Augusta Larralde nor den  
ez nekike erraten.  
Euskaltzaleei ahalko diet  
**daugin** bilkuran galdegiten.

### Madalena

Augusta, non ote zara?  
Uztaritze **zokokatu** dut.  
Absolutuki zurekin  
orain **elestatu** behar dit.

### Lafitte Apeza

Idazle haren **gibeletik**  
ez zaitezela haboro **akitu**.  
Ingurukan ariko zara,  
ez dizu balio **tirrit**.

Jainkoaren aitzinean  
kofesatu beharko dut:  
Augusta Larralde hura  
osoki nik asmatu dut.

### Madalena

Ez nuen **puru** pentsatuko  
Augusta apaiz bat zela.  
Berri bitxi hori utzirik,  
lagun nazazu berehala.

### Lafitte

Berriki ezagutu dut  
Emazte Abertzaleen Batza.  
Iparraldean zuek ere  
eman zeniezaiokete botza.

ausart  
txinparta

datarren

arakatu

hitz egin

atzetik  
nekatu

tutik

inola ere

Talde bat sortüren düzü  
emazteen biribilkatzeko  
Balios da züen ahala  
herriaren iratzarrarazteko.

**Madalena**

Eüskal parropietako,  
serorategietako  
Bürüengana banoazü,  
militanteen biltzeko.

Talde bat sortuko duzu  
emazteen biribilkatzeko.  
Balios da zuen ahala  
herriaren iratzartzeko.

**Madalena**

Euskal parrokietako,  
**serorategietako**  
buruengana banoa,  
militanteen biltzeko.

[komentu](#)

## 7. JELKALDIA

*Eskualerri Zaleen Biltzarraren bilkura*

### Lafitte apeza

Eskualerrizaleen Biltzarrekoak  
gira egün Jüntatürrik  
beiteizüegü errangei  
zer dügün gogoan.

### Jean

Hats berri bat horra zaikü  
taldearen indartzera  
Emazte biltzar bat date  
azkar, argi, alagera.

### Leon Lassale

Bena bozkatzeko dreta  
heben emazteek ez düe  
Nola sinesgarritarzün  
ekarten ahal leiküe?

### Jean Hastoy

Beste herriek bezala  
heben bozka eskümena  
Zalhe kausitüko diagü,  
Frantzia dük kasik azkena.

### Eugène Goyheneche

Gure lan ardatzetarik  
ez gütüeno hürrüntzen  
Gizon/Emazte izanik,  
zerk dü garrantzi haboroen?

### Jean Mestelan

Mereximentüa badüe  
hola hasteko karraskan  
Argitaratü behar diat  
gure «Aitzina» kasetan.

Bidasoaren bi aldeetan  
ber legeak güntüan  
lehen Eüskal emazteak  
ziren errespetatürrik

### Madalena

Jadanik emazte zonbait  
hasirik zaizkü hüillantzen  
Oroentako lana bada,  
ahalko gira jüntatzen.

### Lafitte apeza

Eskualerri Zaleen Biltzarrekoak  
gara egun juntaturik,  
baitizuegu errangai  
zer dugun gogoan.

### Jean

Hats berri bat **horra zaigu**  
taldearen indartzera.  
Emazte biltzar bat **dateke**,  
azkar, argi, alagera.

### Leon Lassale

Baina bozkatzeko eskubidea  
hemen emazteek ez dute.  
Nola sinesgarritasun  
ekartzen ahal ligukete?

### Jean Hastoy

Beste herriek bezala  
hemen bozka eskumena  
**zalu kausituko** diagü.  
Frantzia duk kasik azkena.

### Eugène Goyheneche

Gure lan ardatzetarik  
ez **gaituzteno** urruntzen,  
gizon/emazte izanik,  
zerk du garrantzi **haboroen**?

### Jean Mestelan

Merezimendua badute  
honela hasteko **karraskan**.  
Argitaratu behar diat  
gure Aitzina kazetan.

Bidasoaren bi aldeetan  
ber legeak genituen.  
Lehen euskal emazteak  
ziren errespetaturik.

### Madalena

Jadanik emazte zenbait  
hasirik zaizkigu hurbiltzen.  
Oroendako lana bada;  
ahalko gara juntatzen.

[datorkigu](#)

[izango da](#)

[laster / lortu](#)

[gaituzten arte](#)

[gehien](#)

[iskanbila](#)

**Jean**

Euskal Herriaren alde  
eramaiten dūgūn lana  
Ahal oroz azkart dadin  
izan behar da oroena.

**Jean**

Euskal Herriaren alde  
eramaten dugun lana  
ahal oroz azkar dadin  
izan behar da oroena.

## 8. JELKALDIA

1935eko otsailean, Donibane Lohizunen, lehen emakume-taldea bildu

### Madalena

Eskerrik hanitx lagünak  
saldo handian hüllantürik  
Gure barneko sügarra  
hobe dügü antolatürik.

Arbasoetarik altxor bat  
eskü artean dügüla  
Guri da igaranaraztea  
haurrer memoria, kültüra.

Probintzia bakoitxean  
eüskararen zaintzaleak  
Bederazkatüko gira,  
gü gira «Begiraleak».

### Aña Morale

Gazte gütün eta harro,  
küküsoak bezala jauzka  
Sinesgarriago date  
lanean izertzen den neska!

### Madalena Bribet

Xaharrek ez diñe besterik:  
lana, lana, arralana,  
Zentzüa, antolaketa  
emankorrago dün Aña!

### Maiana Basterreix

Lehen hobeki ümen zen,  
üsü hori entzüten da  
Orhitzapener etxeka  
fiteago hirotzen da!

### Martta Hastoy

Arbasoen ohidürak  
herri honen abiagia  
Orai guri da historiaren  
aitzina eramaitea!

### Maddi Diharce

Eüskararen erakasteko  
antzerkiak, kurtsoak  
emanen dütügü «Gure Etxean»,  
has gitean emazteen biltzen!

### Madalena

Eskerrik anitz lagunak  
**saldo** handian hurbildurik.  
Gure barneko sugarra  
hobe dugu antolaturik.

Arbasoetarik altxor bat  
esku artean dugula,  
guri da iraganaraztea  
haurrei memoria, kultura.

Probintzia bakoitzean  
euskararen zaintzaileak  
banatuko gara.  
Gu gara Begiraleak.

### Aña Morale

Gazte gaitun eta harro,  
**kukusoak** bezala jauzika.  
Sinesgarriago dateke  
lanean izerditzen den neska!

### Madalena Bribet

Zaharrek ez ditzen besterik:  
lana, lana, birlana.  
Zentzua, antolaketa  
emankorrago dun, Aña!

### Maiana Basterreix

Lehen hobeki omen zen;  
usu, hori entzuten da.  
Oroitzapenei atxiki,  
**fiteago hirotzen da!**

### Martta Hastoy

Arbasoen ohiturak  
herri honen abialekua.  
Orain guri da historiaren  
aitzina eramatea!

### Maddi Diharce

Euskararen irakasteko  
antzerkiak, kurtsoak  
emanen ditugu Gure Etxean.  
Has gaitezen emazteen biltzen!

talde

arkakuso

arin / usteldu

## SATANERIA

### Satan

Orai berriz emazteak,  
gizonak bezain **espantotx!**  
Hori düeia deitzen «bardingoa»?  
Üzkütüt izatea, hots?

### Sutagar

Ez gintikek ützi behar  
soberaxka azkartzera  
Isilaraziko ditiagü  
beha ezen gure herra!

### Satan

Bai ahoak jos bagenetze  
hastial horier, beütie botz!  
Zurratüko ditiñagü  
eüskaldunak oro zekotz.

### Sutagar

Hortarako badük mitilxkota,  
papoa fite hantzen zaiona  
Eüskal lürren bereganatzeko  
eginen dik ehoka hona!

### Satan

Franco deitzen dün  
hanitx maite düdan miñiñi  
Bere lagunak ere halaxe dütün  
Hiltler eta Mussolini.

### Sutagar

Hik hainbeste maite badük  
krepaut, tzüsto dük balinba  
Ontsa diat odolarekin  
txostakatzen laket bada.

### Satan

Orain berriz emazteak,  
gizonak bezain **espantotx!**  
Hori **dutea** deitzen berdingoa?  
**Uzkizut** izatea, hots?

### Sutagar

Ez genitzkek utzi behar  
**sobera** azkartzera.  
Isilaraziko ditiagu,  
**beha** ezaten gure **herra!**

### Satan

Bai ahoak jos bagenizkie  
**hastiagarri** horiei, baitute botz!  
Zurratuko ditinagu  
euskaldunak oro kolpez.

### Sutagar

Horretarako baduk mutikoa,  
**papoa fite** handitzen zaiona.  
Euskal lurren bereganatzeko  
eginen dik **eroka** ona!

### Satan

Franco deitzen dun  
anitz maite dudan miñiñi.  
Bere lagunak ere halaxe ditun,  
Hiltler eta Mussolini.

### Sutagar

Hik hainbeste maite baduk,  
lotsagabea, ustel duk, **baldinba.**  
Ontsa diat odolarekin  
jostatzen **laket bada.**

harroputz  
al dute  
harroputz

gehiegi  
entzun /  
gorroto

gorrotogarri

bular / arin

sarraski

zalantza gabe

atsegin badu

## 9. JELKALDIA

*Espainiako Gerra Zibila, 1937ko uztailetik 1939ko apirilera*

### **Alessandro Pavolini**

Guretako ere goxo dik  
hirekila jüntatzea  
Zer berri da, heltü hiza  
eüskaldün tzarren hiltzera?

### **Ramón Serrano Súñer**

Errepresioari esker,  
hanitx preso sartü ditiat  
Bena zernahi ezkapatzen  
omen dütü «Iparraldealat».

Aspaldixkan «Abertzaleak»  
killikatzen ari ziztadak  
Orai gogo honez  
nik ere sartüko ditzeiat ziztadak.

Espainia maitearen  
batarzün zatiezinari  
Ñarru ñarru kurruskan ari zaio  
delako «Eüskal Herri».

### **Joachim von Ribbentrop**

Nik ere bai arraza tzarrik  
badiat Alemanian  
Horien errausteko plan bat  
prestatzen diat aspaldixkan

Gose den herritarraren  
sabela betatzen badük  
Propaganda haren büriän  
aise aisago sartzen dük.

### **Clara Petacci**

Hitler bezala fiago  
aritzea espraba ezak:  
Eüskaldüna mündüaren  
etsaia dela heda ezak!

Asmatzen ahal hükeena  
lükek Gorriekin direla  
Katolizismoarentako  
mehatsü handi bat direla.

### **Alessandro Pavolini**

Guretako ere gozo duk  
hirekin jüntatzea.  
Zer berri da? Heldu **haiza**  
euskaldun tzarren hiltzera?

### **Ramón Serrano Súñer**

Errepresioari esker,  
anitz preso sartu ditiat.  
Baina zernahi eskapatzen  
omen dituk Iparralderat.

Aspaldi abertzaleak  
kilikatzen ari zaizkidak.  
Orain gogo onez  
nik ere sartuko zizkieat ziztadak.

Espainia maitearen  
batasun zatiezinari  
**ñarru-ñarru** kurruskan ari zaio  
delako Euskal Herri.

### **Joachim von Ribbentrop**

Nik ere arraza txarrik  
badiat Alemanian.  
Horien errausteko plan bat  
prestatzen diat aspaldi.

Gose den herritarraren  
sabela betetzen baduk,  
propaganda haren buruan  
aise-aiseago sartzen duk.

### **Clara Petacci**

Hitler bezala finago  
aritzea proba ezak.  
Euskalduna munduaren  
etsaia dela heda ezak!

Asmatzen ahal hükeena  
lukek gorriekin direla,  
Katolizismoarendako  
mehatxu handi bat direla.

al haiz

karraska

### **Mola jenerala**

Errautsiko dütügularik,  
mündüa gure alte dükek  
Ustez Jinkoarentako  
güdükan girela laket!

### **Herta Oberheuser**

Lagüntüko diagü Franco,  
tratü egiten badügü  
Ekarriko deiküzüela  
ondoko gerlan süstengü.

### **Mola jenerala**

Hitza hitz gure artean.  
Ordüan ontsa bazaizüe  
«Condor» lejjione azkarra  
prestatüko deiküzüe.

Apirilaren 26an,  
sürprisa date Gernikan  
Oparixkot bat zelütik  
heltüko da merkatüan!

### **Joachim von Ribbentrop**

Ez gitean halere arrunt  
hegalta fanfarrukerian  
Ahoak josirik goazan,  
hitzak hor egon ditean.

### **Mola jenerala**

Errautsiko ditugularik,  
mundua gure alde dukek,  
ustez Jainkoarendako  
gudukan garela laket!

### **Herta Oberheuser**

Lagunduko diagu Franco,  
tratu egiten badugu  
ekarriko diguzuela  
ondoko gerran sostengu.

### **Mola jenerala**

Hitza hitz gure artean.  
Orduan, ontsa bazaizue,  
Condor legio azkarra  
prestatuko diguzue.

Apirilaren 26an,  
sorpresa dateke Gernikan.  
Oparitxo bat zerutik  
helduko da merkatuan!

### **Joachim von Ribbentrop**

Ez gaitzen, halere, **arrunt**  
hegalda fanfarroikerian.  
Ahoak josirik goazen,  
hitzak hor egon daitezen.

[berchala](#)



## GERNIKA

Gernika!  
Zure kantu sarkorra entzun dut gau hontan:  
Aditu izan nuen jadanik askotan:  
Bozkarioz bihotza gainditzen zitzaitan.  
Gaur egin dut gogotik nigar ilunpetan...  
Gernika!

Gernika!  
Ikusten zaitut hilen herria iduri;  
Etxe aurtikiz baizik ez zare igeri...  
Udaberria irriz dago munduari:  
Harri beltzetan lore guti zait ageri.  
Gernika!

Gernika!  
Orai datza ohiko Kartago bezala,  
Paret beltz handi batzu baizik ez dauzkala.  
Jazko euskaldun hiri haren gorputz hila  
Nigarrik egin gabe nola ikus, nola?  
Gernika!

Gernika!  
Xorutzen iluntzen daut hitz horrek bihotza.  
Mendek jakinen dute haren zorigaitza...  
Numanze ta Kartagoz ez gaitezke mintza,  
Goraki erran gabe Euskadin, han, datza:  
Gernika!

Gernika!  
Zure kantu sarkorra entzun dut gau honetan.  
Aditu izan nuen jadanik askotan.  
Bozkarioz, bihotza gainditzen zitzaidan.  
Gaur egin dut gogotik negar ilunpetan,  
Gernika!

Gernika!  
Ikusten zaitut; hilen herria irudi.  
Etxe jaurtikiz baizik ez zara **igeri**.  
Udaberria irriz dago munduari.  
Harri beltzetan lore gutxi zait ageri,  
Gernika!

Gernika!  
Orain datza ohiko Kartago bezala,  
pareta beltz handi batzuk baizik ez dauzkala.  
Iazko euskaldun hiri haren gorputz hila  
negarrik egin gabe nola ikus, nola?  
Gernika!

Gernika!  
Zoratzen iluntzen dit hitz horrek bihotza.  
Mendeek jakinen dute haren zorigaitza.  
Numantzia eta Kartagoz ez gaitezke mintza,  
goraki erran gabe: Euskadin han datza  
Gernika!

ugari

## 10. JELKALDIA

*Frankismoaren basakeriatik ihesi, ehunka euskal herritar Iparraldera doaz*

### Jean

Frankistek orai xüxenka  
zibilak ehaiten dütüe  
«Fedearen izenean» ümen...  
Meza ahutzerik dükeie!

### Asier Arin

Segür salatü behar dik  
horren ondorioak  
betiko bilakatü beno lehen.  
Ez dük irabaziko Franco!

### Madalena

Bonba horiek ez deiküe  
nortarzüna porrokiko!  
Gezurra sala dezagün,  
mündüari jakinarazteko.

### Aitor Kortabitarte

Gü gordaxka bizi gütük  
ülünpean eta isilik  
Sasietan gordatzen den botzak  
indar apürra dik.

### Jean

Madalena izan gitean  
anai arreben leküko  
Jüstizia esperantxan  
gütüzü borrokatüko.

### Madalena

Atzaman «Euzko Deyak» oro  
erosi ditiat igorteko  
Iparraldeko güzien  
konzientzien iratzartzeko.

Propagandak ito dütik  
kasko argi zentzüdünak  
Arren frankisten gezür hori  
argitü behar dik egiak.

Frantses prentsak ez dik korajerik  
frankisten alte jarten dük  
Dütüen espiritü auherren  
iharraustera joanen nük.

### Jean

Frankistek orain zuzenki  
zibilak **eraiten** dituzte.  
Fedearen izenean omen.  
Meza ahantzirik **dukete!**

### Asier Arin

Segur salatu behar dituk  
horren ondorioak,  
betiko bilakatu baino lehen.  
Ez duk irabaziko, Franco!

### Madalena

Bonba horiek ez digute  
nortasuna **porrokatuko!**  
Gezurra sala dezagun,  
munduari jakinarazteko.

### Aitor Kortabitarte

Gu gordeka bizi gaituk  
ilunpean eta isilik.  
Sasietan gordetzen den bozak  
indar apurra dik.

### Jean

Madalena, izan gaitezen  
anai-arreben lekuko.  
Justizia esperantzan  
gara borrokatuko.

### Madalena

Atzeman Euzko Deyak oro  
erosi ditiat igortzeko,  
Iparraldeko guztien  
kontzientzien iratzartzeko.

Propagandak ito ditik  
**kasko** argi zentzudunak.  
**Arren** frankisten gezur hori  
argitu behar dik egiak.

Frantses prentsak ez dik **kuraiarik;**  
frankisten alde jartzen duk.  
Dituzten espiritu alferren  
**inarrostera** joanen nauk.

[hiltzen](#)

[izango dute](#)

[hautsi](#)

[buru  
beraz](#)

[ausardia](#)

[astindu](#)

## 11. JELKALDIA

*Madalena Parisera doa*

### **Claude Bourdet**

Euskaldünek bizi düen  
dohakabetza deiküzü  
Pariserat arte salatü  
koraje hanitx badüzü.

### **Madalena**

Egiak mündü zabalealat  
hedatzea merexi lüke  
Jakitea ez da aski,  
orai lagüngo behar nüke.

### **Jacques Maritain**

Idatzi düzün gütüna  
nik izenpetüko deizüt  
Errefüxiatuak, presoak  
süstengatü nahi düüt.

### **Claude Bourdet**

Zure erranek deiztade  
ideiak hein bat argitü  
Halere... horren sinesteak  
arriskü harrarazten deikü.

### **Madalena**

Prefosta ez dela aisa,  
bestela ez nündükezün  
Hainen hürrünetik jinen,  
etxen baratüko nündüzün!

### **François Mauriac**

Zure analisa fiak  
bihotza honki ditazü  
Errepresio honen kontreko  
gütünarekin akort nüzü.

### **Madalena**

Otoi Musde Mujica,  
ekarri deizüdan gütüna  
Aipa ezozü Pie XIIri  
hau beita Francoren lagüna.

### **Musde Mateo Mujica**

Zük badakizün bezala,  
bihotza zurekilan dit  
Zorigaitzez... gütün hori  
ez diot emaiten ahal nik:

### **Claude Bourdet**

Euskaldunek bizi duten  
dohakabetza duzu  
Pariserat arte salatu.  
Kuraia anitz baduzu.

### **Madalena**

Egiak mundu zabalerat  
hedatzea merezi luke.  
Jakitea ez da aski;  
orain lagüngo behar nuke.

### **Jacques Maritain**

Idatzi duzun gutuna  
nik izenpetuko dut.  
Errefuxiatuak, presoak  
sostengatu nahi ditut.

### **Claude Bourdet**

Zure erranek dizkidate  
ideiak hein bat argitu.  
Halere, horren sinesteak  
arrisku harrarazten digu.

### **Madalena**

**Prefosta** ez dela aise,  
bestela ez nintzatekeen  
hain urrunetik **jinen**.  
**Etxen** baratuko nintzen!

### **François Mauriac**

Zure analisi finak  
bihotza hunkitu dit.  
Errepresio honen kontrako  
gutunarekin akort naiz.

### **Madalena**

Otoi, musde Mujica,  
ekarri dizudan gutuna  
aipa iezaiozu Pio XII.ari,  
hau baita Francoren laguna.

### **Musde Mateo Mujica**

Zuk badakizun bezala,  
bihotza zurekin dut.  
Zorigaitzez, gutun hori  
ez diot ematen ahal nik.

noski

etorri

nire etxean

Gasteizerik urtukirik,  
Erroman niz plantatürük  
Mussoliniren aztaparrek  
isiltzera behartürük.

Gasteizetik jaurtikirik,  
Erroman naiz plantaturik,  
Mussoliniren hatzapparrek  
isiltzera behaturik.

## 12. JELKALDIA

*Hegoaldeko errefuxiatuei laguntzeko, Begiraleak eta Eskualerri Zaleen Biltzarra antolatzen dira*

### Madalena

Jean ez diat berri honik:  
izenpedürak bildürik ere  
Mujicak dezebitü nik,  
ez gitik lagüntüko batere.

### Jean

Frankismoa hedatzen da  
eritarzün tzar bat bezala  
Entzün düt Hegoaldetik  
zalhe ezkapi behar düela.

### Elisa Arramendi

Begiko kide bezala  
eüskal aurrideer lagüngo  
Eskeini behar degüla  
üdüritzen zait gütiengoa.

### Jean Mestelan

Ez dezagün ahatz halere  
hurak Marxister lotü zirela  
Eritarzün gorri zikin hori  
fedearen etsaia dela.

### Ibarnegarai

Bakün ta batzün da  
aroa haütatü beharko dügü  
Demokrategi izatez  
ez günüke behar galdü.

Frankisten kontre joaitea  
lanjerosegi lükek  
Axuriak otsoari so,  
xantza handirik ez likek!

Jadanik güti girela,  
kasü eman beharko da  
Holako arrisküak hartzez,  
bihar desagertürük gira!

### Madalena

Polixine eta Juliak,  
Hegoaldetik abiatü düen  
Emazte talderik gabe  
Begirik ez zükian heben.

### Madalena

Jean, ez diat berri onik.  
Izenpeak bildurik ere,  
Mujicak desengainatu nauk.  
Ez gaituk lagunduko batere.

### Jean

Frankismoa hedatzen da  
eritasun txar bat bezala.  
Entzun dut Hegoaldetik  
**zalu** eskapatu behar dutela.

### Elisa Arramendi

Begiko kide bezala,  
euskal haurrideei lagungoa  
eskaini behar diegula  
iruditzen zait gutxiengoa.

### Jean Mestelan

Ez dezagun ahantz, halere,  
haiek marxistei lotu zirela;  
eritasun gorri zikin hori  
fedearen etsaia dela.

### Ibarnegarai

Bakun eta konplexu da  
aroa; hautatu beharko dugu.  
Demokrategi izatez  
ez genuke behar galdu.

Frankisten kontra joatea  
**lanjerosegi** lukek.  
Axuriak otsoari so,  
**xantza** handirik ez likek!

Jadanik gutxi garela,  
kasu eman beharko da.  
Honelako arriskuak hartzez,  
bihar desagerturik gara!

### Madalena

Polixene eta Juliak  
Hegoaldetik abiatu duten  
emazte talderik gabe  
begirik ez **zukean** hemen.

laster

arriskutsu

ukera

izango zuan

Ordüan arriskü hartzea  
merexi düen jenteentako  
Hil behar balin bada ere,  
xüxen dük ene gustüko.

**Polixene Trabudua**

Biak zuzen zabiltzate,  
kontuz ibili zaitezte  
Sasietan bukatzea  
debaldetan lizateke!

**Madalena**

Ontsa gorda bagenetza  
gure herri ttipietan  
Sibasean adibidez?  
Edo «Gure-etche» hoitan?

**Jean**

Ez dit nahi familia  
hortan sarraraz dezagün  
Aski sofritü dizüe,  
pausatzera ützt detzagün!

**Madalena**

Amari aipatüko dioat  
akort lizatekenez hura,  
Iheslariet baitüe  
pausü habororen beharra.

Orduan, arrisku hartzea  
merezi duten jendeendako.  
Hil behar baldin bada ere,  
zuzen duk ene gustuko.

**Polixene Trabudua**

Biak zuzen zabiltzate;  
kontuz ibili zaitezte.  
Sasietan bukatzea  
debaldetan litzateke!

**Madalena**

Ontsa gorde bagenitza  
gure herri ttipietan,  
Sibasian adibidez?  
Edo Gure-etche honetan?

**Jean**

Ez dut nahi familia  
horretan sarraraz dezagun.  
Aski sufritu dute.  
Pausatzera utz ditzagun!

**Madalena**

Amari aipatuko zioat  
akort litzatekenez hura,  
iheslariet baitute  
**pausu** habororen beharra.

[atseden](#)

## ETORKIN IZATEA

Frankismoa, Euskaldunen sakoa  
urtez eta mentez  
Herria hüstü züana  
gure haurridez  
Iparralde / Mexikorat  
Haurrak besapean nigarrez  
Jakín gabe norbaitek  
borta zabaltüko ze(ie)nez.

Lehen ere, lan eskasak  
franko partiarazi zütüan  
Ata, aipü zen «Ameriketa»  
züenen gogoan  
Esperantxaren prezioa  
karioegi zenean  
Ametssetako bizia  
baratzen zen itsasoan.

Euskaldunen gisan etorkinak  
beren herrietarik doatza  
Bizitzeko herra gogoan,  
penaz hantürik bihotza  
Sortü eta hil: bizi-mügek  
bardintzen gütüe  
Ata mügek bizi liferentak  
eskeintzen deizküe.

Beti arrahastea bada  
Historiaren küpüstea  
Bihar guri datekea  
etxetik joatea?  
Zer lizate arbasoen gisan  
nomada izatea?  
Gihaur biziari hola  
lotzeko gei gintakea?

Amyra alaba bizkarrean,  
goixtiar zünüen abioa  
Helbürü bakarra zünüan:  
haurraren boztarioa  
Itsasoan, desertüan,  
hüllantik so zünüen herioa  
Erakatsi deiküzüe  
zoin den biziaren balioa.

Euskaldunen gisan etorkinak  
beren herrietarik doatza  
Bizitzeko herra gogoan,  
penaz hantürik bihotza

Frankismoa, euskaldunen zauria  
urtez eta mendez,  
herria hustu zuena  
gure haurridez.  
Iparralde, Mexikorat  
haurrak besapean negarrez,  
jakín gabe norbaitek  
**borta** zabalduko zienetz.

Lehen ere, lan eskasak  
franko **partiarazi** zituen.  
**Alta**, aipu zen Ameriketa  
zutenen gogoan.  
Esperantzaren prezioa  
**karioegi** zenean,  
ametssetako bizia  
**baratzen** zen itsasoan.

Euskaldunen gisan etorkinak  
beren herrietarik doaz.  
Bizitzeko **herra** gogoan,  
penaz handiturik bihotza.  
Sortu eta hil, bizi-mügek  
berdintzen gaituzte.  
**Alta**, mügek bizi diferenteak  
eskaintzen dizkigute.

Beti berrastea bada  
historiaren joera,  
bihar guri **datekea**  
etxetik joatea?  
Zer litzateke arbasoen gisan  
nomada izatea?  
Guhaur biziari horrela  
lotzeko gai **ginatekea**?

Amyra alaba bizkarrean,  
goixtiar zenuen abioa.  
Helburu bakarra zenuen:  
haurraren bozkarioa.  
Itsasoan, desertuan,  
hurbildik so zenuen herioa.  
Irakatsi diguzue  
zein den biziaren balioa.

Euskaldunen gisan etorkinak  
beren herrietarik doaz  
Bizitzeko herra gogoan,  
penaz handiturik bihotza

ate

abiarazi  
hala ere

garesti

geratu

grina

hala ere

izango al da

al ginateke

Sortü eta hil: bizi-mügek  
bardintzen gütüe  
Ata mügek bizi liferentak  
eskeintzen deizküe.

Sortu eta hil, bizi-mugek  
berdintzen gaituzte.  
Alta, mugek bizi diferenteak  
eskaintzen dizkigute.



### 13. JELKALDIA

*Espainiako Gerra Zibila*

#### **Carmen Polo**

Züen «eüskal» ideiekin  
akitarazten gütützüe  
Franco handiaren eretzean  
ttipiek ere galtzen düe.

#### **Maria Rosa Urraca Pastor**

Zabal etzatzüe begiak  
mündü orotako kartetan  
Müga bat baizik ez beita  
Frantzia-Espainiaren artean.

#### **Madalena**

Entzün düzüeia lagünak?  
Gure eüskal nortarzüna  
Eho nahi deikü etsaiak!  
Orano badügü lana!

#### **José Antonio Primo de Rivera**

Nahi ala ez nortarzüna  
pürki düzie frantsesa  
Züen ideiak bezala:  
frantses oilarkeria hütša!

#### **Mola jenerala**

Jatorrigabeko «eüskara»  
diozüena «hizkuntza»  
Ez dakizüe idazten ere!  
Non da ordüan interesa?

#### **Elena Gavel**

Eüskal nortarzünean  
kültürak bere leküa dü  
Kantan, dantzan has gitean  
ez gүнüke behar galdü.

#### **Teresa Hirigoyen-Eutti**

Badütügün sabaietan  
emaitez dantza eta kantü  
Azkenekoz behar dügü  
gure biziiaz jabetü.

#### **Pilar Primo de Rivera**

Züek ideia espantotxez  
zidee mükürü betेरik  
Beste lanik ez düzüeia,  
oro gerlan ari direlarik!

#### **Carmen Polo**

Zuen euskal ideiekin  
**akiarazten** gaituzue.  
Franco handiaren **eretzean**  
ttipiek ere galtzen dute.

#### **Maria Rosa Urraca Pastor**

Zabal itzazue begiak,  
mundu orotako **kartetan**  
muga bat baizik ez baita  
Frantzia-Espainiaren artean.

#### **Madalena**

Entzun **duzuea** lagunak?  
Gure euskal nortasuna  
**ero** nahi digu etsaiak!  
**Orano** badugu lana!

#### **José Antonio Primo de Rivera**

Nahi ala ez nortasuna  
**puruki** duzue frantsesa,  
zuen ideiak bezala.  
Frantses oilarkeria hutsa!

#### **Mola jenerala**

Jatorri gabeko euskara,  
diozüena hizkuntza,  
ez dakizue idazten ere!  
Non da, orduan, interesa?

#### **Elena Gavel**

Euskal nortasunean  
kulturak bere lekua du.  
Kantan, dantzan has gaitezen.  
Ez genuke behar galdu.

#### **Teresa Hirigoyen-Eutti**

Baditugun **sabaietan**  
ematez dantza eta kantu,  
azkenekoz behar dugu  
gure biziiaz jabetu.

#### **Pilar Primo de Rivera**

Zuek ideia **espantotxez**  
zarete **mukuru** betेरik.  
Beste lanik ez **duzuea**,  
oro gerran ari direlarik?

nekarazi  
aurrean

mapa

al duzue

hil  
oraindik

zeharo

ganbara

harroputz  
goraino  
al duzue

**Luisa Barucq**

Hegoaldeko aurrideak  
lanjerean direla egün  
Gütik oro eman ez dezen,  
oroek güti eman dezagün.

**Graxi Lacarra**

Begiraleak azkarki  
orotan hedatzen ari gira  
Hastapeneko bi taldeak  
orai hogeita hamar gira!

**Lüxi Lazcano**

Eüskararen süstatzeko  
haurrer, eta gazteer erakasteko  
Badea eragile hoberik,  
gihaur emazteak beno?

**Isabela Hiriart**

Ama hizkuntza deitzen da  
gure eüskal mintzajea  
Gure ardüra argi da:  
eüskarari bizi emaita.

**Luisa Barucq**

Hegoaldeko haurrideak  
**lanjerean** direla egun,  
gutxik oro eman ez dezaten,  
oroek gutxi eman dezagun.

arrisku

**Graxi Lacarra**

Begiraleak azkarki  
orotan hedatzen ari gara.  
Hastapeneko bi taldeak  
orain hogeita hamar gara!

**Luxi Lazcano**

Euskararen sustatzeko,  
hurrei eta gazteei irakasteko,  
**badea** eragile hoberik,  
guhaur emazteak baino?

ba al da

**Isabela Hiriart**

Ama hizkuntza deitzen da  
gure euskal mintzaira.  
Gure ardura argi da:  
euskarari bizi ematea.

## SATANERIA

### Satan

Sütagar, horik entzün dütüka?  
Zühazkeriaren sonüak  
Odol gosea pizten dik,  
izerdi trenpan ditiat hortzak!

Orratz ziztak bezala dün  
herra frankista mingarria  
Ekintzak tzarkeriaz josirik,  
biba Franco dendaria!

### Sutagar

Erran nian horrek bazakikeela  
ürrikalmentürük gabe  
Basakeriaren hedatzen!  
Gozoki ari duk, lotsagabe!

### Satan

Sütagar orano haboroxagoñi  
ikara azkar bageneza?!  
Gerlan Iparraldekoer karrearaztez  
bandera frantsesa!

### Sutagar

Hik badakik odolarekin  
hanitx laket nizala  
Pitz bedi arren orai bertan  
bigarren gerla mündüala!!

### Satan

Sutagar, horiek entzun **dituka**?  
Gaiztakeriaren soinuak.  
Odol gosea pizten dik.  
Izerdi patsetan ditiat hortzak!

Orratz ziztak bezala dun  
**herra** frankista mingarria.  
Ekintzak txarkeriaz josirik.  
Biba Franco dendaria!

### Sutagar

Erran nian horrek **bazekikeela**  
**urrikalmendurik** gabe  
basakeriaren hedatzen.  
Gozoki ari duk, lotsagabe.

### Satan

Sutagar, **orano haboro**  
ikara **azkar bageneza**?  
Gerran Iparraldekoei eramanaraztez  
bandera frantsesa!

### Sutagar

Hik badakik odolarekin  
anitz laket naizela.  
Pitz bedi, **arren**, orain bertan  
Bigarren Mundu Gerra!!

al dituk

gorroto

jakingo zuen  
erruki

are gehiago  
azkartuko  
bagenu

bada

## 14. JELKALDIA

1939an, Bigarren Mundu Gerra

### Pierre Laval

Gerla mündüal hau dügü  
bazterren xuritzeko parada  
Fhürrerraren alte jarten ez dena  
zalhe hilen da.

### Michel Béguerie

Arrazakeriak dütü hazten  
züen diskurtso handiak  
Gure biltzeko beharko dütüzüe  
arrazu hobeak!

### Pierre Laval

Jüdio teiükeriari  
gas bafada ttipi batez  
«Mein Kampf» erakatsiko deiegü  
beren «Tanakh» horren partez.

### Itta Bajtel

Herrak ez dü deüs ere ekarten  
züek hortan zidee bermatzen  
Bortizkeria erabiltez  
ez da deüs ere honik eraikitzen.

### Irma Grese

Erresistentzian zidenak  
joanen zidee Gürserat  
Han dütüzüen lagünekin  
zürrün atearen kaskoalat.

### Jean Dacosta

Bürüa lanapean düzüe,  
ardi saldo baten gisan  
Jarraik gogozkatü gabe:  
Hitler ariko da züen leküan!

### Maud Champetier de Ribes

Lürpean da züen leküa  
GORRI hastigarriak  
Hobeki hirotzen dira  
ezpiritü oldarzaleak.

### Marie Madeleine Fourcade

Reicharen basakeriari  
bühürtzen jarraik dezagün  
Comète sareari esker  
eia irabazten dügün.

### Pierre Laval

Mundu gerra hau dugu  
bazterren zuritzeko parada.  
Führerraren alde jartzen ez dena  
**zalu** hilen da.

### Michel Béguerie

Arrazakeriak ditu hazten  
zuen diskurtso handiak.  
Gure biltzeko, beharko dituzue  
arrazoi hobeak!

### Pierre Laval

Judu **teiukeriari**  
gas bafada ttipi batez  
Mein Kampf irakatsiko diogu  
beren Tanakh horren partez.

### Itta Bajtel

**Herrak** ez du deus ere ekartzen.  
Zuek horretan zarete bermatzen.  
Bortizkeria erabiltzez  
ez da deus ere onik eraikitzen.

### Irma Grese

Erresistentzian zaretenak  
joanen zarete Gurserat.  
Han dituzuen lagunekin,  
**zurrun atearen** kaskorat.

### Jean Dacosta

Burua lainopean duzue,  
ardi saldo baten gisan.  
Jarrai **gogozkatu** gabe.  
Hitler ariko da zuen lekuan!

### Maud Champetier de Ribes

Lurpean da zuen lekua,  
gorri **hastigarriak**.  
Hobeki **hirotzen** dira  
espiritu oldartzaileak.

### Marie Madeleine Fourcade

Reicharen basakeriari  
**bihurtzen** jarrai dezagun.  
Comète sareari esker  
ea irabazten dugun.

laster

zikinkeria

gorroto

gorpu / pila

gogoeta egin

gorrotagarri  
usteldu

aurre egin

## 15. JELKALDIA

### Clément

Ez düt haboro süportatzen  
lagün horiek oro hil ditean  
Zerbait egin behar dügü,  
sar gitean erresistentzian.

### Jean

Ene medezi bülegoan  
ikusten düt jente franko  
Aisagarri lizateke  
mezüen igaranarazteko.

### Madalena

Ni hasirik niz kota petan  
gütün eta mezü gordatzen  
Informazioek müga  
igaran ahal izan dezen.

### Dorotea

Sibasea prestatzen düt  
erresistenteentako  
Atzaman behar beitate  
lekü oroen gordatzeko.

### Jean

Hola hola antolatzez,  
azkarrago girateke  
Gure indarrak jüntatzez,  
etsaiari bühürt gintake.

### Clément

Ez dut **haboro** suportatzen  
lagun horiek oro hil daitezen.  
Zerbait egin behar dugu;  
sar gaitezen erresistentzian.

### Jean

Ene mediku bulegoan  
ikusten dut jente franko.  
**Aisagarri** lizateke  
mezuen iraganarazteko.

### Madalena

Ni hasirik naiz **kota** pean  
gutun eta mezu gordetzen,  
informazioek muga  
iragan ahal izan dezaten.

### Dorotea

Sibasia **prestatzen** dut  
erresistenteendako,  
atzeman behar baitateke  
leku oroen gordetzeko.

### Jean

Horrela antolatzez,  
azkarrago **garateke**.  
Gure indarrak juntatzez,  
etsaiari **bihur** gintezke.

gehiago

eroso

gona

eskaini

izango gara

aurre egin

## 16. JELKALDIA

### Marie Jaragohen

Ümen atzaman dütüela  
berrogei aleman Maulen  
Horik phürü ez zizküzü  
haboro guregana hüllantüren.

Gisala presoner egin  
dütüela Olaberrietan  
Hidondoren olha hartan,  
hantxe Garraibiko zolan.

Xiberoko Makiaren  
kolpe bat dela entzün dit  
Bena orai ahoa josirik:  
ez dakit deüs ere, isilik!

### Luisa Ahane

Entzün dit negü ondarrean  
gerla ürrentüko zela  
Bedatsearekin batetan  
bakea jinen zaiküla.

### Marie Jaragohen

Omen atzeman dituztela  
berrogei aleman Maulen.  
Horiek **puru** ez zaizkigu  
**haboro** guregana hurbilduko.

**Gisala** preso egin  
dituztela Olaberrietan,  
Hidondoren ola hartan,  
hantxe, Garraibiko **zolan**.

Xiberoko makiaren  
kolpe bat dela entzun dut,  
baina orain ahoa josirik.  
Ez dakit deus ere; isilik!

### Luisa Ahane

Entzun dut negu hondarrean  
gerra **urrenduko** zela,  
**bedatsearekin** batean  
bakea **jinen** zaigula.

behintzat  
gehiago

dirudienez

barrenalde

amaitu  
udaberri  
etorri

## XENDETARIK

Bedatsea agertzen delarik,  
bidea zaikü zabaltzen  
Ordüan urte oroz bezala  
bortüalat gira abiatzen  
Txakürra lagün, artaldearekin  
gira hüxtüka igaraiten  
Ata aurtan, gure bazter ederrak  
ülün dira batüren.

Naziek abiarazirik,  
Europa osoan hedatzen da gerla  
Ordüan ahal oroz etsaiari  
bühürtü behar dügü berehala  
Xiberoko Makiarekin  
xoko batetik besteala  
Alkarrekin heltüko gira  
herriaren libertateala!

Artaldiarekilan gure kideak  
igaraiten dira isilik  
Mügaren beste aldealat  
badoatza bortüz bortü xendetarik  
Eüskal Herriko hegoalde  
ala iparraldetik jinik  
Haurride baratüko gira  
eüskaldünak oro lehen lehenik.

**Bedatsea** agertzen delarik,  
bidea zaigu zabaltzen.  
Orduan, urte oroz bezala,  
**borturat** gara abiatzen.  
Txakurra lagun, artaldearekin  
gara **hixtuka** iragaten.  
**Alta**, aurtan, gure bazter ederrak  
ilun dira baratuko.

Naziek abiarazirik,  
Europa osoan hedatzen da gerra.  
Orduan ahal oroz etsaiari  
**bihurtu** behar dugu berehala.  
Xiberoko makiarekin  
txoko batetik bestera,  
elkarrekin helduko gara  
herriaren libertatera!

Artaldearekin gure kideak  
iragaten dira isilik.  
Mügaren beste alderat  
badoaz **bortuz** bortu **xendetarik**.  
Euskal Herriko hegoalde  
ala iparraldetik **jinik**,  
**haurride** baratuko gara  
euskaldunak oro lehen-lehenik.

udaberri

mendi-larre

txistuka  
hala ere  
gelditu

aurre egin

mendi / bide

etorri  
senide

## 17. JELKALDIA

*Gerra amaitu da*

### Jean

Honki jin adiskideak,  
Sibasearen boztera  
Bihotza berotzen zitak,  
züen ikustean bera.

### Etxahun Iruri

Egün eder hortan nahi nikek  
gerlaren basakeriari  
Mendeka gitean egün,  
lekü üztez amodioari.

### Garat Arane

Zer ülün beltza zen gerla,  
tiran günüan lanapea  
Bakeak ekarri deikü  
argi leinürü eztia.

### Madalena

Argi azkorriaren gisan,  
esposak hüllandü zaizkü  
Omentü nahi nütüke,  
bide lüze bat opatü.

### Etxahun Iruri

Espos-esposak, xantza hon  
ondoko urteetako!  
Biziak plazerez gain beütüke  
arrenküra franko.

Bena oraidanik  
biga baziratekie  
Alkarrekin behaztopak  
garaitü zenetzazkie.

### Garat Arane

Baratx-baratxa zoazte birazka,  
ürratsean goiz argiala  
Tabalaren tanka lagün,  
brale batetan bezala.

### Jean

Ongi **jin**, adiskideak,  
Sibasiaren poztera.  
Bihotza berotzen zait  
zuen ikustean berean.

### Etxahun Iruri

Egun eder horretan nahi nikek  
gerraren basakeriari  
mendeka gaitezen egun  
leku uztez amodioari.

### Garat Arane

Zer ilun-beltza zen gerra.  
**Tiran** genuen lainopea.  
Bakeak ekarri digu  
argi **leinuru** eztia.

### Madalena

**Argi-azkorriaren** gisan,  
**esposak** hurbildu zaizkigu  
Omendu nahi nituzke;  
bide luze bat opatu.

### Etxahun Iruri

Espos-esposak, **xantza** on  
ondoko urteetako!  
Biziak plazerez gain **baituke**  
**arrangura** franko.

Baina oraindanik  
biga **bazaretekete**.  
Elkarrekin behaztopak  
garaitu zenitzakete.

### Garat Arane

**Baratxe**-baratxe zoazte bikotean  
urratsean goiz argira,  
atabalaren tanka lagun,  
**branle** batean bezala.

etorri

hedaturik

izpi

egunsenti  
senar

zorte

izango baitu  
kezka

izango zarete

astiro

maskaradako  
dantza



## ESPOS-ESPOSEI TOPA

Zoinen eijer den bedatsean lehen lilia  
Baratze xokoan irus ageri  
Zoinen eijer den mahain saintüala bildürrik  
Bi espos esküak emanik alkarri  
Egünko egünak hortara ekarri gütü  
Ohore espos eta esposari  
Züen biziko desiratzen dereizüegü  
Bier xantza hon eta osagarri

Espos maiteak orai jakin behar düzüe  
Züen honetan zer datean geroa  
Batean plazer bestean aldiz arrenküra  
Uste gabeko nahi gabekoak  
Bena oraidanik biga baziratekie  
Aisa egarteko züen eskernioak  
Bai eta pekü güzieren kontsolagarri  
Egün jüntatü zütüen amodioa

Mündü hontan den bekaxkeriarik handiena  
Betidanik da aberastarzüna  
Ene ustez aldiz hontarzün baliosena da  
Osagarri honean gaztetarzüna  
Bizitze berri bati бүрүз bagoatzalarik  
Hartürrik esposetako eraztüna  
Amodio sühar batek inganatürrik  
Hori da hori egiazko fortuna

Zelü gainean ekhirik ederrena beita  
Arratsaldeari бүрүз itzaltzen  
Espos maiteak nik hortan dit züek bezala  
Aita eta ama gaixo horier pentsatzen  
Arratsalde horri бүрүз joanik beitira  
Ikas ezazüe horren eztitzen  
Bakean horiek lagüntüren beitzütüe  
Züen haur maiteen ontsa eraikitzen

Üzten zütüet espos gazte maitagarriak  
Hortan debeia(ra)zi gabe sobera  
Suhetatzen dereizüet xantza hon batekin  
Bizi ahal zitaien alagera  
Noizta(ra)-noizta(ra) jin ere nahi banintzateke  
Züekin kafe hon baten hartzera  
Eta mentüraz Jinkoak plazer düalarik  
Zazpigerren haurraren egartera.

Zeinen eder den **bedatsean** lehen lilia;  
baratze txokoan **uros** ageri.  
Zeinen eder den mahai santura bildurik  
bi espos eskuak emanik elkarri.  
Egungo egunak horretara ekarri gaitu;  
ohore espos eta esposari!  
Zuen biziko desiratzen dizuegu  
biei **xantza** on eta **osagarri**.

Espos maiteak, orain jakin behar duzue  
zuen onetan zer datekeen geroa.  
Batean plazer, bestean, aldiz, **arrangura**,  
uste gabeko nahigabekoak.  
Baina oraindanik biga **bazaretekete**,  
aise **egarteko** zuen **eskarnioak**.  
Bai eta **peku** guztien kontsolagarri  
egun juntatu zaituzten amodioa.

Mundu honetan den bekaizkeriarik handiena  
betidanik da aberastasuna.  
Ene ustez, aldiz, ondasun baliotsuena da  
**osagarri** onean gaztetasuna.  
Bizitze berri bati buruz bagoazelarik,  
harturik esposetako eraztuna,  
amodio suhar batek **engainaturik**  
hori da hori egiazko fortuna.

Zeru gainean ekirik ederrena baita  
arratsaldeari buruz itzaltzen,  
espos maiteak, nik horretan dut, zuek bezala,  
aita eta ama gaixo **horiei** pentsatzen.  
Arratsalde horri buruz joanik baitira,  
ikas ezazue horren eztitzen.  
Bakean horiek lagunduko baitzaituzte,  
zuen haur maiteen ontsa eraikitzen.

Uzten zaituztet, espos gazte maitagarriak,  
horretan **debeiarazi** gabe sobera.  
Opatzen dizuet **xantza** on batekin  
bizi ahal zaitezten alagera.  
**Noiztara**-noiztara jin ere nahi banintzateke  
zuekin kafe on baten hartzera.  
Eta menturaz Jainkoak plazer duelarik,  
zazpigarren haurraren **egartera**.

udaberri  
zoriontsu

zorte / osasun

kezka

izango zarete  
jasan/lan zail  
gaiztakeria

osasun

bultzatu

horietaz

asperrarazi  
zorte

noizbehinka

mundura  
ekarri

## 18. JELKALDIA

1953ko uda

### Jean

Bedatsea ürrenturik,  
indarrak ttipiturik ditit  
Mündü hontarik banoazü,  
üdari leküa ützirik.

### Madalena

Ene bizi adiskide handiena  
izan hiz Jean,  
Zer hütsünea nükean  
hire joaiten ikustean.

Ttipitik egin ditiagü  
zonbait balentria, ederrak!  
Hirekin abiarazi lanak  
aitzina eramanen ditiat.

### Jean

«Ilüsiõne bat bera da,  
lür gaineko pasajea»  
Hori sortzetik jakinik ere,  
guri delarik ez düzü aisa...

### Jean

Bedatsea **urrendurik**,  
indarrak txikiturik ditut.  
Mundu honetarik banoa,  
udari lekua utzirik.

### Madalena

Ene bizi adiskide handiena  
izan haiz, Jean.  
Zer hutsunea nukēan  
hire joaten ikustean.

Txikitik egin ditiagu  
zenbait balentria, ederrak!  
Hirekin abiarazi lanak  
aitzina eramanen ditiat.

### Jean

Ilusio bat bera da  
Lur gaineko pasatzea.  
Hori sortzetik jakinik ere,  
**guri** delarik ez da aise.

amaitu

gutaz

## JEANEN HILTZEA

Bizia ezkapi zait ustegabeen  
Denbora eginbeharrez mukuru betea  
Ahalaz düdentako lekürik ez leitean  
Bizia hain zalhe ürrent leitekea?

Balinba ordü düt kontükaren egiteko:  
Medezigoaren haütüa, zentako?  
Erien sendotzez hiltzetik hürrüntzeko?  
Arren herioa hor düt oraikoan nihaurentako.

«Deüs ere» bilakatzea, hau misterioa  
Gogoak honart lezakeenaren kontrarioa  
Ata hortan ürrentzen da ene istorioa  
Adio bizia, adio boztarioa.

Bizia eskapatu zait ustekabeen,  
denbora eginbeharrez mukuru betea.  
**Ahalaz** dudendako lekürik ez litekeen,  
bizia hain **zalu urren litekea?**

**Baldinba** ordu dut kontuen egiteko.  
Medikuntzaren hautua, **zerendako?**  
**Erien** sendotzez, hiltzetik urrüntzeko?  
**Arren** herioa hor dut oraingoan nihaurendako.

Deusez ere bilakatzea, hau misterioa,  
gogoak onar lezakeenaren kontrarioa.  
**Alta** horretan ürrentzen da ene istorioa.  
Adio bizia, adio **bozkarioa.**

ahal den eran  
arin amaitu al  
liteke  
zalantza gabe  
zertarako  
gaixo  
bada

hala ere  
poztasun

## 19. JELKALDIA

1951n, Deixonne legea, eskualdeetako hizkuntzen aldeko elkartearen laguntzeko

### Louis Dassance

Euskararen hedatzeko  
eskütan dügün altxorra  
Haurrer erakasteko bada  
tresna zorbaiten beharra.

### Laffitte apeza

Tresner indar emateko  
legean berma gitean  
Hortakoz jorra nezake  
«Euskara legearen eretzean».

### Eugène Goyheneche

Euskal Herriko historia  
eta geografia dira  
Aipatü beharrak euskaraz  
berexezinak beitura.

### Michel Labeguerie

Ni psiko-pedagogia arloari  
lot nintakezü  
Elebidüntarzüaren  
interesa argi düzü.

### Madalena

Teoriaren aipatzea  
ontsa da bena praktikak  
Hobeki erakasten deikü  
zoin diren problematikak:

Inspektür akademiko,  
errektore, depütatü  
Horiengana niz hüillantü  
tai gabe argümentatü.

Azkenean honartü düe  
eskoletan ebil nadin  
Aste oroz oren ttipi bat  
hasi berri niz Lakarrin.

Euskaldün ez diren erakasleek  
ahoz zerbait erakats dezen  
Nihaurek egin deiet diska bat,  
ahal nükeena aurkezten!

### Louis Dassance

Euskararen hedatzeko,  
eskutan dugun altxorra.  
Haurrei irakasteko bada  
tresna zenbaiten beharra.

### Laffitte apeza

Tresnei indar emateko  
legean berma gaitezen.  
Hortaz, jorra nezake  
euskara legearen **eretzean**.

### Eugène Goyheneche

Euskal Herriko historia  
eta geografia dira  
aipatu beharrak, **euskaraz**,  
bereizezinak baitira.

### Michel Labeguerie

Ni psikopedagogia arloari  
lot nenkieke.  
Elebiduntasunaren  
interesa argi da.

### Madalena

Teoriaren aipatzea  
ontsa da, baina praktikak  
hobeki irakasten digu  
zein diren problematikak.

Inspektore akademiko,  
errektore, diputatu,  
horiengana naiz hurbildu,  
**tai gabe** argumentatu.

Azkenean, onartu dute  
eskoletan ibil nadin.  
Aste oroz **oren** txiki bat  
hasi berri naiz Lakarrin.

Euskaldun ez diren irakasleek  
ahoz zerbait irakats dezaten,  
nihaurk egin diet disko bat,  
ahal nükeena aurkezten.

aurrean

euskaratik

eten gabe

ordu

### **Sauveur Narbais**

Diska bezalako tresnak  
zabaltü behar güntüke  
Arren eüskal erakaskuntzaz  
hitz zonbait erran netzake.

### **Jeanne-Marie Malharin**

Lehen mailako eskolan  
düdan experientziatik  
Abiatzez egin niokezü  
xeheki aurkezpen bat nik.

### **Louis Dassance**

Bakoitzak züen arloan  
jorrazeko düzüenaren  
Barnatzeko bi egünak  
parada hona dirate arren!

Gure arbasoen altxorrak  
omenaldi bat merexi dü  
Eüskal Müseoa beno  
lekü hoberik ez dügü.

Gure lekükotarzünak,  
geroaren baratzea  
Izan ditean sor dezagün  
IKASen abiapüntüa.

### **Sauveur Narbais**

Diskoa bezalako tresnak  
zabaldü behar genituzke.  
**Arren** euskal irakaskuntzaz  
hitz zenbait erran nitzake.

### **Jeanne-Marie Malharin**

Lehen mailako eskolan  
dudan esperientziatik,  
abiatzez egin **niro**  
xeheki aurkezpen bat nik.

### **Louis Dassance**

Bakoitzak zuen arloan  
jorrazeko duzuenaren  
barnatzeko, bi egünak  
parada ona **dirateke arren!**

Gure arbasoen altxorrak  
omenaldi bat merezi du.  
Euskal Müseoa baino  
leku hoberik ez dugu.

Gure lekukotasunak  
geroaren baratzea  
izan daitezen, sor dezagun  
Ikas-en abiapuntua.

bada

nezake

izango dira  
hortaz

## 20. JELKALDIA

1975ean, Madalena eta Jean omendurik euren lanagatik

### Michel Labeguerie

Bakoitzak euskararen alte,  
handi da egin düzüena  
Sari hau har ezazüe  
Etxahun eta Madalena.

### Etxahun Iruri

Esker mila bihotzetik,  
egünko sariarentako  
Izan dadila buhako  
berri bat euskararentako.

### Euskaltzaindiko ordezkaria

Nik Euskaltzaindiaren  
ohorezko kide gisan  
Errezebitüko zütüt  
Gipuzkoako Aldundian.

### Hezkuntza Nazionaleko ordezkaria

Euskararen alte egin lana  
zoin errespetagarria  
Argi, kartsü, fia düzü  
zure nortazün handia.

Hezkunde nazionalaren  
izenean eskeintzen deizüt  
Sari akademiko hau,  
zü bezain azkar eta txüt.

### Monzon

Eskerrak zuri eta Jeani  
egin düzüen güziaz  
Errefüxiatüentako,  
nihork hori ez beza ahatz.

### Madalena

Eskerrak sari horientako,  
zoinen ohoratürrik nizan  
Pentsamentü azkarrenak  
horetako ditiat, Jean.

Gihaur zalhe joanik ere,  
taldean hürrünago goatza.  
Eüskal Herria et(a) eüskara  
izan dira gure hatsa!

### Michel Labeguerie

Bakoitzak euskararen alde,  
handi da egin duzüena.  
Sari hau har ezazue,  
Etxahun eta Madalena.

### Etxahun Iruri

Esker mila bihotzetik,  
egungo sariarendako.  
Izan dadila **buhako**  
berri bat euskararendako.

### Euskaltzaindiko ordezkaria

Nik Euskaltzaindiaren  
ohorezko kide gisan,  
errezebituko zaitut  
Gipuzkoako Aldundian.

### Hezkuntza Nazionaleko ordezkaria

Euskararen alde egin lana,  
zein errespetagarria!  
Argi, kartsu, **fia** da  
zure nortasun handia.

Hezkuntza nazionalaren  
izenean eskaintzen dizut  
sari akademiko hau,  
zu bezain azkar eta zut.

### Monzon

Eskerrak zuri eta Jeani  
egin duzüen guztiaz  
errefuxiatuendako.  
Inork hori ez beza ahatz.

### Madalena

Eskerrak sari horiendako.  
Zeinen ohoraturik naizen.  
Pentsamendu azkarrenak  
horetako ditiat, Jean.

Guhaur **zalu** joanik ere,  
taldean urrunago goaz.  
Euskal Herria eta euskara  
izan dira gure hatsa!

bufada

sotil

arin

## LIBRE ETXEN

Abrekeria zer tristezia horrengatik  
Behar izan düt nik laster egin sorlekütik  
Adin florean ogenik gabe inozentik  
Maite beitzüntudan oi Ama Euskadi oroen gainetik.

Entzün nezazü «Ama» zure deitzen  
Entzün nezazü zure nigarstatzen  
Eüskaldün lürretik naüe ohiltzen  
Noiz ote ni sartüren niz libro etxen.

Bai madarikatzen haügü Hitler Kriminela  
Lehen-lehen kausa behiz izan gitean hola  
Errekaz isurrarazi dereikük hik odola  
Hire airekoekin holaxe kolpatü gure arbola.

Ez adiorik oi Donostia ta Gernika  
Nausi zaharra hasirik beita intzirika  
Ez dakigüla eüskaldün hoier hain mendeka  
Uste beno lehen ez zakion ütül errepublika.

Abrekeria –zer tristezia– horrengatik,  
behar izan dut nik **laster** egin sorlekutik.  
Adin lorean, **hobenik** gabe, inozente,  
maite baitzintudan, oi Ama Euskadi, oroen gainetik.

Entzun nazazu, ama, zure deitzen.  
Entzun nazazu zure negartzen.  
Euskaldun lurretik naute **ohiltzen**.  
Noiz ote ni sartuko naiz libre **etxen**.

Bai, madarikatzen haugu, Hitler kriminala.  
Lehen-lehen kausa bahaiz izan gaitezen honela.  
Errekaz isurrarazi diguk hik odola.  
Hire **airekoekin**, honelaxe kolpatu gure arbola.

Ez adiorik, oi Donostia eta Gernika,  
nagusi zaharra hasirik baita intzirika.  
Ez dakigula euskaldun horiei hain mendeka,  
uste baino lehen ez dakion itzul errepublika.

ihes  
erru

egotzi, bota  
nire etxean

hegazkin

## 21. JELKALDIA

*1977. urtean, Madalena hiltzen da 93 urtetan*

### Madalena

Jean, hitzeman nüan bezala,  
alkarrekin hasi lanak  
Aitzina eramaiteko  
ahalak oro egin ditiat.

Oraikoan adin handia diat  
pausatzera joan nintakek  
Ez duk haboro ene esku,  
ondokoen aldi dükek.

### Madalena

Jean, hitzeman nuen bezala,  
elkarrekin hasi lanak  
aitzina eramateko  
ahalak oro egin ditiat.

Oraingoan adin handia diat,  
pausatzera joan nintekek.  
Ez duk **haboro** ene esku;  
ondokoen aldi **dukek**.

gehiago  
izango duk



## MADALENAREN HILTZEA

Biziak ützi deitan denbora igaran dit erakaspenetan  
Laxüki nihauren herexa bat ützi nahian  
Ene odola zükeanari bizi emateko ahalgabeen  
Holaxe nüzü nihur baratzen herio aitzinean.

Zü aldiz denboraren aztaparretarik aitzina zoaza  
Gerlen artetik, heriotik haratago baratx baratxa  
Zuri esker partekatü ditit biziaren piper eta gatza  
Transmisio gosez züntüdan hazi, bilakatü zira ene hatsa.

Ene gisa hiltzen delarik euskal jentea  
Orobat dizü bizirik baratzen deno zure kea  
Arbasoen süak argitüren düano ondoko mentea  
Zuri ari nitzaizü Eüskara, ene haur maitea.

Biziak utzi didan denbora igaran dut irakaspenetan,  
**laxoki** nihauren **herexa** bat utzi nahian,  
ene odola zukeenari bizi emateko ahalgabeen,  
Honelaxe naiz nihur **baratzen** herio aitzinean.

Zu, aldiz, denboraren aztaparretarik aitzina zoaz.  
Gerren artetik, heriotik haratago **baratxe**-baratxe.  
Zuri esker partekatu ditut biziaren piper eta gatza.  
Transmisio gosez zintudan hazi; bilakatu zara ene hatsa.

Ene gisa hiltzen delarik euskal jentea,  
orobat da bizirik, baratzen **deno** zure kea,  
arbasoen suak argitzen **dueno** ondoko mendea.  
Zuri ari natzaizu, euskara, ene haur maitea.

libreki  
/ aztarna  
geratu

astiro

den arte  
duen arte

### **Herriko gazteak**

Hori düzü anaiarekin  
eraman lanaren leküko  
Orai gük dizügu altxorra  
eskü artean hartüko.

Madalena zentüz geroz  
sortü lehen Ikastola  
Lüzaz txütik egoiteko  
lagüngarri den Makila.

Eperraren gisaran eüskarak  
bere Habia badikezü  
Eüskal hümettoak hortik  
hegaltatüko dütützü.

### **Herriko gazteak**

Hori da anaiarekin  
eraman lanaren lekuko.  
Orain gük dugu altxorra  
esku artean hartuko.

Madalena zenduz geroz,  
sortu lehen ikastola.  
Luzaz zutik egoteko  
lagungarri den makila.

Eperraren gisara euskarak  
bere habia **baduke**.  
Euskal umetxoak hortik  
hegaldatuko dira.

[izango du](#)

## BARDAKO AMETSA

Gaüaz ametsetan itsas ontziz nindoan  
Ameriketatik Zibozera itsasoan  
Sibaseko Madalena eta Jeanen ondoan

Gaüaz ametsetan aizea zoan, zalhe  
Hegoaldeko txinkaren hedazale  
Iparraldean euskal süaren atitxazale

Gure Historia balitz bardako ametsa  
Lür hontan dateke biharko ürratsa  
Eüskaraz datekeala da gure egürükantxa

Gauaz ametsetan itsasontziz nindoan  
Ameriketatik Zibozera itsasoan  
Sibasiako Madalena eta Jeanen ondoan.

Gauaz ametsetan haizea zihoan **zalu**,  
Hegoaldeko txingarraren hedatzaile,  
Iparraldean euskal suaren kitzikatzaile.

Gure historia balitz **bardako** ametsa?  
Lur honetan dateke biharko urratsa.  
Euskaraz datekeela da gure **igurikitzea**.

arin

barteko

itxaropen

## AZKENTA

Hainbeste gerla bizitürük  
Sibastarren historiak  
Erakasten deikü zer balio  
handia düan Bakeak.

Gerla edo bortizkeria  
ez da leheneko afera  
Iraganak ützi herexak  
orano senditzen dira:

Arrazakeria, sexismo,  
faxismo, homofobia (etb.)  
Zapalkuntzan bermatürük,  
herra düelako habia.

Bortizki edo honartürük  
txiste baten izenean  
Idea horik orano gustüan  
kurritzen dira gizartean.

Gure historiaz jabetzeak  
sendi den herra isilaz  
Baztertzen lagünt gitzake  
hüllantzez tolerantziatz.

Hortan oroek lan badügü,  
ardüra da bakoitzarena  
Egün oroz hazi beharra  
beitügü alkartzüna.

Jarraik dezagün ondokoer  
alkarlanaren aipatzen  
Eüskal Herri baketsü baten  
lüzarako eraikitzen.

Arren hüllantürük gira  
pastoralaren ürrentzeaz  
Agian zerbait ikasi  
düzüe gure Historiaz.

Eskerrik hanitx saldoan  
Urdiñarberat hüllantürük  
Madalena ta Jean Sibas  
haurrideak ohoratürük.

Azken begi keinütto bat  
gure urdiñarbetar izarrei  
Eüskararen süstatzeko  
egin düzienarentako milesker.

Hainbeste gerra bizitürük,  
sibastarren historiak  
irakasten digu zer balio  
handia duen bakeak.

Gerra edo bortizkeria  
ez da lehengo afera.  
Iraganak utzi **herexak**  
**orano** senditzen dira.

Arrazakeria, sexismo,  
faxismo, homofobia...  
Zapalkuntzan bermaturük,  
**herra** dutelako habia.

Bortizki edo onartürük,  
txiste baten izenean  
idea horiek **orano** gustuan  
**korritzen** dira gizartean.

Gure historiaz jabetzeak  
senti den herra **isilaz**  
baztertzen lagun gaitzake,  
hurbiltzez **tolerantziatz.**

Horretan oroek lan badugu;  
ardura da bakoitzarena,  
egun oroz hazi beharra  
baitugu elkartasuna.

Jarrai dezagun ondokoei  
elkarlanaren aipatzen,  
Euskal Herri baketsu baten  
luzerako eraikitzen.

**Arren** hurbildurik gara  
pastoralaren **ürrentzeaz.**  
Agian zerbait ikasi  
duzue gure historiaz.

Eskerrik anitz saldoan  
Urdiñarberat hurbildurük,  
Madalena eta Jean Sibas  
haurrideak ohoraturük.

Azken begi-keinutto bat  
gure urdiñarbetar izarrei.  
Euskararen sustatzeko  
egin duzenarendako, mila esker.

aztarna  
oraindik

gorroto

oraindik  
ibili

isiletik

tolerantziara

bada  
amaierara

Goixtiar zünüen abioa,  
minberatsüa herrian  
Araoz orano Biltzen zidee  
zelü Xoko argietan.

Goiztar zenuten abioa,  
minberatsua herrian.  
**Arauz, orano** biltzen zarete  
zeru-zoko argietan.

[dirudienez /](#)  
[oraindik](#)

## LAKUAREN PARABOLA

Jondane-Johane gaüan.  
Hantxek Etxekortean  
Artzaina nonbait ezagün da  
Txakürrari oihükan  
Zü estaintzea, Ustegabea,  
Sortü zinen bortüan!  
Mentez mente ipuina hazi  
eüskararen gerizan

Egün Urdiñarbetarrak,  
Antzezlari goiherak  
Ziboze Sibasekoekin  
Plaza hontan izarrak  
Iheslarien, Bai ohiltüen  
Begirale süharrak  
Holaxe büragertü ziren  
bi aurride zühürrak

Goi Nabarran Irulegi  
Esküaren gordagi  
Zorioneko agiantzak  
Gitzala lüzaz segi  
Eüskal senide, Ta adixkide  
Ihoiz ez izan nagi,  
Artizarra ager dakigün  
etengabe goiz-argi!

**Jondane** Joanes gauean,  
hantxe, Etxekortean,  
artzaina nonbait ezagun da  
txakürrari oihuka.  
Zu, lakua, ustekabea,  
sortu zinen **bortuan!**  
Mendez mende ipuina hazi  
euskararen gerizan.

Egun, urdiñarbetarrak,  
antzezlari **goiherak,**  
Ziboze Sibasiakoekin  
plaza honetan izarrak,  
iheslarien bai **ohilduen**  
begirale suharrak.  
Horrelaxe **buragertu** ziren  
bi haurride zuhurak

Nafarroa Garaian, Irulegi,  
eskuaren **gordegia.**  
Zorioneko **agiantzak**  
gaitzala luzaz segi.  
Euskal senide eta adiskide,  
inoiz ez izan nagi.  
Artizarra ager dakigun  
etengabe **goiz-argi!**

done

mendi

alai, atsegin

egotzi, bota

nabarmendu

gordeleku

desira

egunsenti